

## 4. IRABAZI ITURRIAK:

Gure hasierako dirua ez da oso altua izango, lehenengo dirua inbertituko dugulako zerbitzu on bat eskeintzeko, baina denbora pasatu ahala inberitutakoa berreskuratu eta irabaziak izaten hasiko gara. Liburuak eta aldizkariak saduz irabaziko dugu dirua. Guk zerbitzu hori eskeini eta jendeak nahi duena erosi ahalko du.



Honetarako laguntzak jasoko ditugu. Alde batetik, gobernuaren laguntza izango dugu horrela kultura sakabanatzeko eta geratzen den alfabetismoarekin amaitzeko. Gobernuaren partetik jasotako diru-laguntzak jasoko ditugu. Eta beste alde batetik, editorialekin harremana izango dugu. Editorialekin hitz egingo dugu, eta haien liburuak sustatzearen truke, irabazi marjina bat izango dugu.

Noiz behinka ekitaldi desberdinak eskeiniko ditugu ere editorialekin batera, eta horrela jende gehiago erakarriko dugu gure liburutegira. Adibidez, liburu berri baten idazleren batekin eta editorialarekin hitzaldiak antolatuko ditugu, eta idazleak bere liburuaren publizitatea egiteaz gain, jendeak dituen zalantzak argitu ahalko ditu. Horrela, gainera, jende asko gure liburutegira buelta bat emango diote, eta ezagunagoa egingo da. Beraz, gure diru-sarrerak igo egingo dira.

Asko erosten diguten bezeroei deskontuak aplikatuko dizkiegu. Gainera, gure liburutegiko txartel bat egiteko aukera egongo da, eta honek abantailak izango ditu; Bezeroak gure txartela badu, erosten duten bakoitzean puntuak akumulatuko zaizkio, eta 20 puntu lortzean 2,50 euroko deskontua aplikatuko da.

| Produktua                   | Prezioa       | Kantitatea     | Guztira |
|-----------------------------|---------------|----------------|---------|
| <i>Liburuak</i>             | <i>15€</i>    | 100 hilabeteko | 150€    |
| <i>Diskoak</i>              | <i>12€</i>    | 20 hilabeteko  | 240€    |
| <i>Alokairuak</i>           | <i>Dohain</i> | Indefinituak   | 0€      |
| <i>Udaletxeko laguntzak</i> | -             | -              | 6.000€  |

|                |        |
|----------------|--------|
| Produktuak     | 6,10%  |
| Diru laguntzak | 93,90% |